

# Txirritola

Aramaioko euskara elkarteak argitaratuta,  
Udalak diruz lagundutako berripapera.

2001eko azaroa- 6. zenbakia

## MAIDER UNDA:

## LUTXA LIBREAN ESPAINIAKO TXAPELDUNA



**24 URTE DITU, BAINA ESPERIENTZIA LUZEA DU LUTXA LIBRE KIROLEAN. AZKENENGO ALDIZ, TUNEZEN IZANDAKO TXAPELKETAN HARTU ZUEN PARTE ETA BRONTZEZKO DOMINA LORTU ZUEN.**

### 📍 -Noiztik egiten duzu lutxa libre kirola?

- 1987an Sambo egiten hasi nintzen, judoren antzekoa da, eta hiru urte beranduago lutxa librean hasi nintzen. Kirol honetan, kategoria bakoitza pisuaren arabera eta adinaren arabera sailkatzen da. Nik, lehen 75eko kategorian nengoen, baina momentu honetan 65ekoan nago.

### 📍 -Gogorra da kirol hau egitea?

- Nahiko gogorra da, batez ere preparazio handia behar delako. Baina, inportanteena kirol hau gustokoa izatea eta kalitateak eukitzea da. Eta gogorre-na, zalantza barik, lesioak dira, eta kirol honetan nahiko erraz egiten ditugu.

### 📍 -Zuk, izan duzu lesiorik?

- Tunezen izandako azken txapelketan izan nuen bakarra, matralan golpe handi bat eman zidaten eta operatu beharra izan nuen.

### 📍 -Edozeinek egin dezake kirol hau?

- Bai, zergatik ez? ez da baldintza handirik eskatzen. Kalitateen artean, indarra izan behar da, eta habilitatea. Orduak sartuta, esperientzia lortzen da eta horixe da inportanteena kirol honetan.

### 📍 -Eta adin aldetik badago mugarik?

- Ba, nik ez ditut mugak jartzen. 24 urte ditut eta jarraitzeko asmoa daukat, eta gogotsuago esaten den bezala, kirol hau hurrengo Olimpiadetan sartzen bada. Hainbeste denbora kirol honetan ibili ondoren, ez noa uzten Olinpiadetan parte hartzeko aukera hori aprobetxatu barik.

### 📍 -Txapelketa askotan hartu duzu parte?

- Nahiko txapelketetan hartu dut parte, bai, Espainiako selekzioan. Izan ere, ez gara hainbeste kirol honetan gabiltzan neskak eta txapelketa gehienetan berdinak elkartzen gara.

### 📍 -Nola preparatzen zara?

- Astean hiru egunetan Gazteizko gimnasio batera joaten naiz, preparadore batekin teknika eta bestelakoak lantzeko. Eta horretaz gain, nire kabuz ere kirol asko egiten dut: bizikleta, footing, ...

### 📍 -Zer esaten dizute zure lagunek? Eta etxekoek?

- Gehienetan animoak ematen dizkidate. Tunezen izandako lesioa dela eta, etxekoak apur bat beldurtu ziren, baina pasatu da.

### 📍 -Bestelako afiziorik bai?

- Lagunekin irtetea gustatzen zait baina azkenaldi honetan ez naiz gauzez irteten, hurrengo goizean asko kostatzen da martxa hartzea eta.

Egunekotasuna ahazteko, zinera joaten naiz.

## Aramaixoko ipuiñek, zenbat tesoro!

HERRI DANAK MUNDUEN HAUNDI-ZABALIEN DAUKIE IPUIÑEK ETA, JAKIÑE, ARAMAIXOK BE BAI BERIEK. ARAMAIXOKO UDALAK BEKABAT ATARA AUEN GURE HERRIKUEK JASOTEKO, AHAZTU EZ DAITTEZEN. DIVINA

ARRIOLABENGOA ETA ARANTZA OZAETA IBILLI DIE AUZORIK AUZO ASPALDIKO KONTUEK DAKIXEN JENTIAZ.



👉 -Nundik eta nora sortu da hau lanau?

- Honek lanonek Aramaixoko Udalan 2000.urteko kultur proiektuen barruen urten auen. Proiektu horren ideie Patxi Salaberriri zorjako, eta aurrera erueteko ekimena Udaleko Kultura eta Euskera Saillei.

👉 -Ze tresna erabili dozue ipuiñek jasoteko?

- Batetik, Udalak gure esku jarri auen grabadorie. Eta bestetik, On Joxe Migel Barandiaranen galdeketa etnografikue. Hori galdeketau izugarri zabala da, eta guk bakar-bakarrik "Ipuinak eta legendak" atala erabili gen. Gure lana Arabako "Etniker" taldien esku geldittuko da, Arabako ipuiñ eta leinden saille osaketako.

👉 -Zein izen da zuen lana?

- Lehenengo, grabaziñuek in dittuau; gero papeleratu egin dou grabautakue; eta, azkenik, txosten bat prestatu dou.

👉 -Zer motatako ipuiñek die?

- Badie umiei kontetako ipuiñek, baitte Bajongo Torraldeko kondiena eta Aixolako Dontxona moruko leiendak be; asko daz animalixan ingurukuek, eta gero, lamiñak, sorgiñek, Martin Abare, tesoruengurukuek...

👉 -Hau lanau egiñez, zer ikesi dozue?

- Batez be aspaldiko denporak ezauketako aukerie izen dou eta, inportantie dana, gure

arbasuen pentsakerie eta mundue ikusteko modure urreratu gara. Gaiñera, oso da aberatza eta atsegiñe zaharrai entzutie, ohitturen gaiñein, bizi-tzan gañien... eta gero ebalten dauien berbete berue, doiñue...

👉 -Ipuñek herrixen zabalketako asmorik badau?

- Udalak erakutzi dau publiketako asmue, baiñe ondion ez daz gauzak lotute.

👉 -Fantasia eta errealidadien arteko mugie topau dozue?

- (Barre) Errealidadie, zer da? Guk ikusi dou muga hori oso mehie dala.

👉 -Besterik esango zeukie?

- Eskerrak emun gure dotzau Udalari dirulaguntza atate arren. Eta eskerrik beruenak ezkatzien hartu gaittuenendako. Gozo egon gara euren konpañian.

“Ipuñ asko daz, animalixan ingurukuek, eta gero, lamiñak, sorgiñek, Martin Abare, tesoruengurukuek, ...”

# KONTETAKO EDO ENTZUTEKO IPUIN BATZUK

## 👉 ONTZANA

- Bai, amak kontetaskun guri sea e ontzan kontue, ontza.
- (...)
- Ontza i san... es i auken lumaik.
- (...)
- Lumaik etzauken, esauken lumaik eta txori danak errukittu i sien da esanaiuen, bueno danok elkartu sien ta pentzau aiuen: "Se in biou guk ontzakin, estauko lumaik!" Orduen pentzau aiuen danak, bakotxak luma bat emutie, luma bat, polittena. Da klaro, ontza orduen geldittu san oso ondo jantzitze, luma polittekin, dotore. Baiñe atzetik, gero, bera olan aurkittu sanien, aiñ dotore oso arro... eta agurtu be etzittuen itten. Da beste txorixek esan aiuen: "Bueno, oiñ ontzak... selan portau dan! Geuk danok emuntzau lumaik polittena!...". Ta erabagi euen egunes es urteteko, gabes urten bie auela ontz orrek.

## 👉 ARKO IRISENA

- Lenau esaten aiuen arkoirise erreka baten da bestien... da ori pasau eskero neskie mutill biurketan sala ta mutille neska biurketan sala, e arek ukutu eskero esateuskuen, gurasuek ori esateuskuen, bai.

## 👉 ZAZPI OTZONA

Egun baten ortuen sien saata aundixek eta neskatillatxo bat juen san orture, ta etorri jakon amai:

-Ama, ama, ama, ortuen saspi otzo!

Da...:

-Ene, ene, ene, saspi otzo asko rie!

-Ba... xei ero bai.

Da:

-Xei o, xei o otzo, xei otzo. Ene! Arrapetan basau!

-Ba saata aundixek die, ortan bost ero isengo rie!

Ta:

-Bost be asko ra baiñe,

-Ba, ba, ba, bentzet lau isengo rie!

Ta:

-Ene ebaketan butzet, ene lau otzo, lau otzo egongo rie??

-Ba saatak diela! Iru bentzet paietz!

Da or, bajau sien bire, ta, bi ta...:

-Baiñe, baiñe, ixillik egon saitte, esta egongo otzue!


-Ba bentzet bat bara, saatak die ta!

-Aber, guasen!

Da juen sien da txitxak, ra, ra, ra, txitxa san... Ta:


-Ene! Ba nik pentzau dot otzuek diela.

Ta txitxak asterka.



# GOITB ikusten al duzu?

## Eta zein programa da gehien gustatzen zaizuna?



**Jabier Arriolabengoa**

Astirik ez daukot baina noiz behinka bai, iragarkiak gehien bat (lanean sintonizatzen ibiltzen naizenean), mahai inguruak, notiziak, ...



**Markel Arriolabengoa**

Ez, ez daukot, bueno kamaran telebista zahar bat daukou eta zerbait interesgarria dauenien ikusten dot.



**Mertxe Nafarrate**

Ez, antenan zerbait ipini behar zaio eta oraindik ez diogu ipini.



**Edurne Larrañaga**

Bai, batzuetan bai. Dauena hemengo gauzak izeten die eta.



**Argi Ormaetxea**

Bai, baina ez dot asko ikusten, informatiboak geixen bat.



**Txomin Elortza**

Bai, gehien bat notiziak.

### ZURE SUJERENTZIAK HEMEN:

#### BAZKIDE-SOZIO IZATEKO TXARTELA

(Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa izango da)

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Banketxea: .....

Kontu korrentea: .....



.....  
.....  
.....